

NEVADAS. DÍAS 9/11/2001 – 10/11/2001

Durante los días 9 y 10 de noviembre, tras un comienzo del otoño con características veraniegas, se produce la entrada de aire polar conducido por dos centros de acción, un potente anticiclón de eje vertical situado en el Atlántico y una profunda depresión sobre Escandinavia (ver figuras 8.1. y 8.2.).

La alta temperatura del mar (17°C) junto con el flujo de vientos del nordeste condiciona la fuerte inestabilidad observada en Bizkaia, con importantes precipitaciones de carácter tormentoso y acompañadas de granizo en la costa y de nieve en el interior. Las precipitaciones llegan a alcanzar entre 50 y 70 mm en algunos puntos como Elorrio, Balmaseda o Barazar. En Alava, se registran 38 mm en Vitoria y 24 mm en Salvatierra, mayoritariamente en forma de nieve. En contraste, en Gipuzkoa apenas se nota el temporal de nieve.

La tardía desfoliación de los árboles conduce a la ruptura de sus ramas debido al peso de la nieve, ocasionando serios problemas en ciudades como Vitoria. El espesor de la nieve alcanza los 15 cm en la Llanada Alavesa y más de 50 cm en puntos de montaña.

Los vientos en el litoral son del nordeste muy fuertes, alcanzándose velocidades de 106 km/h en Zarautz y 109 km/h en Punta Galea. En distintos puntos del interior las rachas máximas son de 60 a 70 km/h y próximos a 100 km/h en áreas de montaña.

En la figura 8.3. podemos observar la entrada de aire polar desde el norte, con una temperatura aproximada de -5 °C en la vertical del País Vasco (a 1440 m). En el nivel de 500 hPa la temperatura es muy fría, alrededor de -36 °C, lo que provoca gran inestabilidad (ver figura 8.4.).

ELURTEAK. 2001/11/09 – 2001/11/10


Azaroaren 9 eta 10ean, udazkena udako ezaugarriekin hasi ostean, aire polarra sartu zen gurera, Atlantiko aldean zegoen ardatz bertikaleko antizikloi indartsu batek eta Eskandinabia gainean zegoen depresio sakon batek bideraturik (ikus 8.1 eta 8.2 irudiak).

Itsasoaren tenperatura altuak (17°C) eta ipar-ekialdetik datozen haizeek eguraldi nahasi eragiten dute Bizkaian, eta trumoiko prezipitazio aipagarriak botatzen ditu, kostaldean txingorra lagun dutela, eta barrualdean eluretan. Prezipitazioak 50 eta 70 mm-tara iristen dira zenbait lekutan, esaterako, Elorrio, Balmaseda eta Barazarren. Araban, 38 mm erregistratu ziren Gasteizen, eta 24 mm Agurainen, gehiena elurretan. Aitzitik, Gipuzkoan ia ez zen elurtearen azterrenik ere izan.

Arboleak ohikoa baino beranduago galdu zutenez ostoa, elur asko pilatu zen adarretan eta ondorioz, adar asko eta asko apurtu egin ziren, eta arazo latzak izan ziren, besteak beste, Gasteizen. Arabako Lautadan 15 cm-ko elur-geruzak estali zuen lurra, eta mendi aldean metro erdi elur izatera iritsi ziren.


Kostaldean haizeak ipar-ekialdetik jotzen du gogor, 106 km/h-ko abiadurarekin Zarautzen eta 109 km/h Galean. Barrualdeko zenbait lekutan 60-70 km/h arteko haizea erregistratzen da, maximotan, eta 100 km/h-ren ingurukoa mendialdean.

8.3 irudian aire polarra iparretik nola sartzen den ikus daiteke; tenperatura -5 °C ingurukoa da EAEko bertikalean (1440 m-tara). 500 hPa-ko mailan tenperatura oso hotza da, -36 °C ingurukoa, eta horrek eguraldi egongaitza eragiten du (ikus 8.4 irudia).



8.1 irudia. Analisi mapa.


Figura 8.1. Mapa de análisis.



8.2 irudia. Analisi mapa.

Figura 8.2. Mapa de análisis.


Geop e Isot 850 2001/NOV/09 12:00h



8.3 irudia. Geopotenziala eta isotermak 500 mb-tara.

Figura 8.3. Geopotencial e isotermas a 500 mb.

Geop e Isot 500 2001/NOV/09 12:00h



8.4 irudia. Geopotenziala eta isotermak 500 mb-tara.

Figura 8.4. Geopotencial e isotermas a 500 mb.